



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

EBAZPENA (Esp.: 09/2012, BIZKAIKO APAREJADOREAK)

Osoko bilera

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kontseilukidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea

Idazkaria: Ibon Alvarez Casado jauna

Bilbon, 2014ko ekainaren 25ean

LABURPENA

TOCLehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), goian adierazitako osaera izanik, Ebazpen hau eman du Bizkaiko Aparailarien eta Arkitekto Teknikoen Elkargoaren (aurrerantzean, Elkargoa) aurka irekitako zehapen-espeditentearen barruan. Zehapen-espeditentea Ikerketa Zuzendaritzak hasi zuen ofizioz, Elkargoak lehia mugatzeko ustez egindako jardueren ondorioz.

I. AURREKARIAK

1. 2012ko abenduan, Lehiaren Euskal Agintzaritzaren (LEA) Ikerketa Zuzendaritzak **jakin zuen** –Elkargoaren web-orrian argitaratutako informazio bidez– Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialaren Peritu Judizialen Elkarteak (aurrerantzean, Perituen Elkarte) izandako zenbait portaerak hautsi egin lezaketela Lehia Defendatzeari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea (aurrerantzean, LDL).

Izan ere, Perituen Elkartearen araudian eskakizunak ezarri zituzten perituen zerrendetan sartzeko, eta eskakizun horiek, hain zuzen, lanbidean aritzeko justifikaziorik gabeko mugak izan litezke.

2. Goian aipatutako gertakariekin lotuta, 2012ko abenduaren 17an Ikerketa Zuzendaritzak **isilpeko informazioaren** izapidetzea abiarazi zuen, Lehia



Defendatzeari buruzko 15/2007 Legearen 49.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, zehapen-espeditente bat irekitzeko egokia zen erabakitzeke.

3. 2013ko uztailearen 1ean, Ikerketa Zuzendaritzak erabaki zuen zehapen-espeditente bat **irekitzea** Elkargoaren aurka, LDLren 49.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, arestian azaldutako gertakarietan ikusi baitziren lehia mugatzeko jardunbideen arrazoizko zantzuak. Zehapen-espeditentea ireki zitzaizela jakinarazi zitzaizen interesdunei 2013ko uztailearen 2an.

4. LDLren aurkako ustezko **jarduna**, lanbidean aritzeko justifikaziorik gabeko mugak jartzea zen, perituen zerrendan sartzeko zenbait eskakizun ezarriz eta horiek Perituen Elkartearen araudian jasoz (aurrerantzean, araudia), zeina Elkargoaren web-orrian argitaratuta baitago¹ (*4tik 12rako folioak*).

5. Espeditente honetan, **interesdunak** hauek dira:

- Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala
- Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala²

6. 2013ko uztailearen 29an, Elkargoaren legezko ordezkariak sinatutako idazki bat sartu zen LEAren Erregistro Orokorrean. Idazki horren bidez, Elkargoak eskatzen zuen adostu zedila zehapen-prozeduraren **amaiera itundurako** jarduerak abiaraztea.

Eskaera hori onartu egin zen, 2013ko abuztuaren 26ko Erabaki bidez. Gainera, eten egin zen zehapen-prozeduraren gehieneko epearen kontaketa amaiera itundua burutu arte, eta eskatzaileari hilabete bateko epea eman zitzaion konpromiso-proposamen bat aurkezteko.

Erabaki hori interesdunei jakinarazi zitzaizen 2013ko irailaren 9an.

7. 2013ko urriaren 7an, Elkargoko lehendakariak sinatutako idazki bat sartu zen LEAren Erregistro Orokorrean. Hartan atxikita bidaltzen zuen **Konpromisoen Proposamena** (konpromisoak) (*189 eta 199 folioak*), jarraian aipatzen direnak eta ebazpen honen eranskin gisa jasotzen direnak:

¹ <http://www.coaatbi.org> helbidean argitaratu zen (eta azkenekoz 2012ko abenduaren 17an kontsultatu). Baina 2013ko uztailearen 1eko espeditentean jasota dagoenez, aldatu egin zen zehapen-espeditentea irekitzeko erabakia hartu ondoren (*199 folioa*).

² Espeditentearen irekitze-datan, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Ikerketa Zuzendaritza interesdun gisa aurkeztu zen. Erakunde hori gaur egun desagertua da, eta haren eskumenak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak hartu ditu, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala sortzekoa den ekainaren 4ko 3/2013ko Legearekin bat.



“(...) Lehen. Berehala Elkargoko web-orritik kentzea gaur egungo araudia eta han ageri diren eta lehiari buruzko legeriaren aurkakoak diren gainerako testu guztiak.

Bigarrena. Ez ezartzea inolako arau-eskakizunik, Prozedura Zibilaren Legeak eta gainerako arau prozesalek ezarritakoez gain, urtero epaitegietara bidaltzen diren zerrendetan elkargokideak sartzeko.

Alde horretatik, eta kontuan hartuta Peritu Judizialen Elkarteko araudian badirela aldatu beharreko atalak baldintza hori beteko bada eta egokitu egin behar direla lehia arautzeko legeria kontuan hartuz, idazki honekin batera aurkezten da araudi horren testua aldatzeko proposamena (ERANSKIN BAKARRA)³.

Prozeduraren ikuspegitik, behin Agintaritza honen baimena lortutakoan, Elkargoaren Gobernu Batzordeak berehalakoan (gehenez hamabost eguneko epean) onartu beharko luke proposatutako araudi-aldaketa, zeren eta kontuan hartuz gai hau ez dagoela Estatutuetan Batzar Orokorren eskumen gisa jasota, Gobernu Batzordeari egotzitako funtzio orokorren barruan sartzeko baita Estatu Orokorren 20. artikuluan (horiek Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2002ko uztaileko Agindu bidez onartu ziren; 2002ko irailak 19ko EHAA).

Hala ere, eta kontuan izanda bai aipatutako araudiaren hasierako onespina bai ondorengo aldaketak ere elkargokideen Batzar Orokorrean onartu zirela, aldaketa berri hau ere Batzar Orokorrean aurkeztuko da berretsi dadin, Batzar Orokorrek egiten duen lehen ohiko bileran, nahitaez urteko hirugarren hiruhilekoan izango dena (indarreko estatutuen 16. artikulua) eta, gertatu ohi den bezala, abenduan egiten dena (aurten hilaren 17rako, asteartea, dago aurreikusita).

Hirugarrena. Lehiaren Euskal Kontseiluak, hala balegokio, hartzen duen **amaiera itunduko ebazpenaren eduki osoa ezagutzera ematea** Elkargoak erabili ohi dituen komunikazio-bideak baliatuz.

Elkargoaren web-orrian sartzeko irekitako espedientearen berri ematen den testu bat, zioak, amaiera itundua eta hartutako neurriak azalduz.

Elkargokide bakoitzari jakinaraztea e-mailez edo gutun bidez, eta Elkargoaren buletina den ALDIZKARIAN txertatzea jakinarazpen bat akordioaren testu osoaren berri ematen duena, aurreko puntuan

³ Aurkeztutako konpromisoen eranskinean araudia dago jasota.



aipatutakoak jasoz (buletina hilero bidaltzen da e-mailez ia elkargokide guztiei eta paperean, berriz, helbide elektronikoa ez dutenei).

Batzarrak aldaketa-akordioa berresten duen unean, horren berri ematen duen albistea jarriko da web-gunean eta elkargokide guztiei jakinaraziko zaie ALDIZKARIA buletinean beste albiste bat jarritz.

Laugarrena.- Lehiaren Euskal Agintaritzari helaraztea hartutako konpromisoak gauzatu izana ziurtatzen duen dokumentazioa, horiek bete direla egiaztatu ahal izan ditzan."

8. 2013ko urriaren 8an, konpromisoen proposamena bidali zitzaion LEKi hark horren berri izan zezan.

Lehiaren Batzorde Nazionalari (MLBN) ere bidali zitzaion, hark irizitako alegazioak egin zitzaion. 2013ko urriaren 16an, MLBNk adierazi zuen bere ustez nahikoak zirela Elkargoak aurkeztutako konpromisoak, lehiari dagokionez hautemandako arazoak behar bezala konpontzeko (*203 folioa*).

9. 2013ko azaroaren 11n, Amaiera Itunduko Akordioaren proposamena eta zehapen-espedientea bidali zizkion Ikerketa Zuzendaritzak Lehiaren Euskal Kontseiluari.

Han, Ikerketa Zuzendaritzak azaltzen du bere ustez Elkargoak hartutako konpromisoek konpondu egiten dituztela hautemandako lehia-arazoak, peritu judizialen zerrendan sartzeko eskakizunak kenduko direla bermatzen dutenez gero, eskakizun horiek ez baitira lege-mailako inongo arau-xedapenetan ageri, eta horrenbestez, interes publikoa behar behar beste bermatzen dela.

Horregatik, LEKri eskatu zion ebazpena emateko, eta, ebazpen horren bidez, aurkeztutako proposamenak onartzeko eta zehapen-prozedura amaiera itundu bidez amaitzeko.

10. Lehiaren Euskal Kontseiluak, 2014ko ekainaren 25ean egindako bileran, espediente honen gaineko erabakia hartu zuen.

III. FROGATUTAKO GERTAERAK

11. Elkargoa zuzenbide publikoko korporazio bat da, izaera juridiko propioa duena eta bere xedeak betetzeko erabateko ahalmena duena.

Elkargoko kide dira beren helbide profesionala, bakarra edo nagusia, Bizkaian ezarrita daukaten aparejadoreak eta arkitekto teknikoak, bai eta helbidea beste



edozein lurralde-mugaketatan izanik elkargoan sartzeko eskatu duten haiek ere.

Elkargoaren jardueraren lurralde-esparrua Bizkaiko Lurralde Historikoa da.

2012ko abenduaren 31an, 1045 elkargokide zituen.

Elkargoak lanbidearen jarduna arautzen du, eta ordezkaritza-lana Bizkaian soilik egiten du. Horrez gain, Elkargoaren helburu dira, baita ere, interes profesionalak eta gizartearen behar orokorrak defendatzea.

Beste funtzio batzuen artean, Elkargoari justizia-epaitegiei elkargokideen zerrenda ematea dagokio, zeinei eskatzen ahal zaien afera judizialetan peritu gisa esku hartzeko.

12. Elkartearen Batzar Orokorrak, 1998an, Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialaren Peritu Judizialen Elkarte deritzona eratu zuen (**perituen elkarte**), izaera juridiko propiorik ez duena⁴. Perituen Elkarte Elkargoaren organo bat da.

Hango kide dira Bizkaiko Aparailarien eta Arkitekto Teknikoen Elkargoan kolegiatutako aparejadore eta arkitekto teknikoak, peritu-zerrendan egon nahi dutenak.

Aitortutako helburuen artean daude, besteak beste, bere lurralde-esparruan peritu-zerrendak egitea eta mantentzea, eta zerrenda horiek zabaltzea interesekoa izan daitekeen lekuetan, bai eta berme-maila egokiz erantzutea oro har gizarteak eta bereziki epaitegiek eta auzitegiek egiten duten peritu-eskaerari.

2013ko urtarrilaren 31n, 47 kide zituen.

Perituen Elkarteak Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialaren Peritu Judizialen Elkartearen araudia betetzen du, zeina 1998ko maiatzaren 26ko Ohiko Batzar Orokorrak onartu baitzuen (aurrerantzean araudia)⁵.

13. Araudiaren 2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Perituen Elkarteari egokituko zitzaion, Elkargoaren barruan, perituen **zerrendak egitea** eta epaitegi eta auzitegien esku jartzea. Araudiak 2. artikuluan ezartzen du, Perituen Elkartearen helburuen artean, honako hau: "bere lurralde-esparruan peritu-

⁴ Elkargoak gai honi buruz emandako erantzuna: Perituen Elkarte Elkargoaren baitako elkarte soil bat baino ez da, izaera juridiko propiorik ez duena, eta beraz, ez dauka IFKrik. Aurrekontu propiorik ere ez dauka, ez eta Elkargoaren aurrekontu-zuzkidura espezifikorik ere (104 folioa).

⁵ Araudiak zenbait aldaketa izan zituen, eta azkena 2005eko abenduaren 15ean izan zen. Bertsio hori dago gaur egun indarrean (*4tik 11ra arteko folioak*).



zerrendak egitea eta mantentzea, eta zerrenda horiek zabaltzea interesekoa izan daitekeen lekuetan" eta "berme-maila egokiz erantzutea oro har gizarteak eta bereziki epaitegiek eta auzitegiek egiten duten peritu-eskaerari".

14. Araudiaren 4. eta 7. artikuluetan daude ezarrita, halaber, Perituen Elkarteko kide izateko eskakizunak, bai eta kide izateari uztekoak ere, jarraian jasotzen denez:

4. artikulua:

1. Elkarteko kideak Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialaren Aparailari eta Arkitekto Tekniko Perituen zerrendetan egongo dira eta peritu edo arbitro gisa jardun ahal izango dute prozesu judizialeetan edo arbitraje-prozesuetan, auzitegiek, administrazioak edo partikularrek hala eskatuta, Elkargoak izendatu edo proposatu behar dituenean.

2. Elkarteko kide izan ahal izango dira eskakizun hauek ziurtatzen dituzten aparejadore eta/edo arkitekto teknikoak:

a) Lanbidean aktibo egotea eta Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialean kolegiatuta egotea.

b) Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialarekin betebeharrak ekonomikoak egunean edukitzea.

c) Zehapenik jaso ez izana laneko hutsegiteagatik.

d) Ezintasun profesional edo deontologikoko kausetan ez egotea.

e) Elkargoko kide gisa gutxienez bost (5) urteko antzintasuna izatea.

f) Hala balegokio, Elkarteak proposatutako eskakizunak edo ofizioz Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialaren Gobernu Batzordeak onartutakoak betetzea, ezartzen diren espezialitate-zerrendetako bakoitzean peritatze-lana egiteko ezinbestekotzat jotzen diren ezagutzak justifikatzeko.

7. artikulua:

1. Elkarteko kide izateari utziko zaio, baldin eta:

a) Ez badira betetzen araudiaren 4. artikuluan aipatutako zenbait eskakizun.

b) Interesatuak berak berariaz eskatzen badu, idatziz Elkarteko Kudeaketa Batzordeari idatzi bat aurkeztuta.

c) Behin eta berriz peritu-enkarguak eskatu eta onartzen ez badira, Elkarteak berak ezartzen duen moduan.



d) Ez baditu egiten, justifikatutako kausarik gabe, esleitutako peritulanak.

e) Interesdunak araudiaren aurkako jarrera badu; Elkarteari ospe txarra ematea ekintzez zein hitzez; Elkartearen administrazio eta gobernatze egokia eragoztekoa edo Elkartearen zereginaren eta helburuen kalterako den egintza edo ez egitezko jarduera gauzatzea.

15. Elkartearen webgunean araudia deskargatu zitekeen⁶.

16. Espedientea irekitzea eragin duten gertaerak kontuan hartuta, ikusten da, nahiz eta Perituen Elkarteak sortu peritatze judizialarekin lotutako aferak kudeatzeko helburuarekin, Elkarteak ez zela benetan inoiz arduratu eskusiboki zerrenden kudeaketaz.

Elkargoko zerrendak sortzeko, urtero deialdi bat egin da izangaiak zerrendetan sartzeko. Deialdi horiek Elkargoaren buletina den ALDIZKARIAren bidez eman dira ezagutzera (*68tik 78ra arteko folioak*).

Beraz, elkargokide guztiei eskaini zaie, mugarik gabe eta Perituen Elkarteko kide izan zein ez izan, perituen zerrendetan izena emateko epe bat.

Espedientean jasotako dokumentazioa aztertuta, ikusten da Elkargoak Perituen Elkarteko kideak sartu dituela perituen zerrendetan, baina baita Elkarteko kide ez direnak ere.

2010eko perituen zerrendan 46 elkargokide daude, eta horietatik 35 dira Perituen Elkarteko kide.

2011ko perituen zerrendan 57 elkargokide daude, eta horietatik 43 dira Perituen Elkarteko kide.

2012ko zerrendan 62 elkargokide daude, baina 44 baino ez dira Elkarteko kide.

Azkenik, 2013ko zerrendan 67 elkargokide daude, eta horietatik 45 dira Elkarteko kide (*52tik 65era arteko folioak*).

Zerrenda osatuak Eusko Jaurlaritzako sail eskudunera bidali zituen Elkargoak, sailak hala eskatuta (*102 folioa*).

⁶ Jarraian jasotzen da Bizkaiko Aparailarien eta Arkitekto Tekniko Peritu Judizialen Elkartearen araudia deskargatu zitekeen web-orria, <http://www.coatbi.org/coatbic/cms/repositorios/repositorioidetalle.asp?IdRepositorio=1&IdDocumento=9&IdMenu=363>, (azkenekoz kontsultatua 2012ko abenduaren 17an). Gerora aldatu egin zen, espedientean jasota dagoenez, zehapen-espedientea irekitzeko erabakia, 2013ko uztailaren 1ekoa, hartu eta gero (*199 folioa*).



III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Aparejadorearen eta arkitekto teknikoaren lanbidea

17. Aparejadorearen eta arkitekto teknikoaren lanbideak ezinbestean eskatzen du kolegiatzea.

Bat etorritz azaroaren 21eko 18/1997ko Legeak, *tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzkoak*, bere 30.1 artikuluan ezarritakoarekin, ezinbesteko eskakizuna da elkargodun lanbideetan aritzeko dena delako elkargoko kide izatea dagokion Legeak hala ezartzen duenean⁷. Horrenbestez, nahitaez kolegiatu beharra lege-mailako arauen batean jasotzen denean bakarrik jo ahal izango da legeari jarraiki jardun dela.

Dena den, elkargoko kide izatea nahitaezkoa duten lanbideak legez arautu ez diren kasuetan –eta Omnibus Legea deritzon 25/2009 Legearen laugarren xedapen iragankorrarekin bat etorritz–, finkatu egin dira lege hori indarrean sartu zen unean indarrean zirenak⁸. Horregatik, kolegiatuta ezinbestean egoteak legezko izaten jarraitzen du, arau-maila egokiko arau bidez ezarrita egon ez arren.

Gure gaiari dagokionez, kolegiatzeko betebeharra jasotzen dute bai 1471/1997 Errege Dekretuak, Aparejadoreen eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialen eta Kontseilu Orokorraren Estatutuak onartzen dituenak, bere 3. artikuluan, eta bai Bizkaiko Aparailarien eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialaren Estatutuek, 4. artikuluan (Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2002ko uztailaren 10eko Agindu bidez onartuak)⁹.

2. Peritatze judiziala

18. Bat etorritz tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 Legearen 24. artikularen m) idatz-zatian ezarritakoarekin, kolegiatzea beharrezkoa den kasuetan, peritatze judizialeko zerbitzuak emateko prest dauden profesionalen zerrenda Elkargo Profesionalari eskatuko zaio, zerbitzu horiek epaileak edo auzitegiak eskatu baditu¹⁰.

⁷ LEAren txostena Albaitarien Euskal Kontseiluaren Estatutuei buruz, 2014ko apirilaren 30ekoa, 9. paragrafoa.

⁸ 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zenbait lege aldatzeko, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzko Legea egokitzeko.

⁹ BOE, 153 zk., 1997ko ekainaren 28koa.

¹⁰ Salbu eta aldeek epaileari edo auzitegiari pertsona jakin bat esleitzeko eska diezaioketen kasuetan.



19. Prozedura Zibilaren Legearen 340. artikulua arautzen ditu zer eskakizun bete behar diren peritatze judizialeko zerbitzuak emateko, eta hau ezartzen du:

1. Adituek izan behar dute irizpena zein gairi buruzkoa izan eta zein izaeratakoa, eta gai eta izaera horiei dagokien titulu ofiziala. Lanbide-titulu ofizialik ez duten gaietan, adituak izendatuko dira, gaiotako jakitun direnen artean.
2. Halaber, aditu-lana zein gairi buruzkoa izan eta horren ikerketan aritzen diren akademiei eta kultura- nahiz zientzia-erakundeei irizpena eska dakieke. Arazo zehatzen inguruan legez gaitutako pertsona juridikoek ere irizpena egin dezakete.
3. Aurreko paragrafoko kasuetan, irizpena zein erakunderi eskatu eta horrek lehenbailehen adierazi behar du irizpena noren edo nortzuen zuzeneko ardurapean egongo den; pertsona horiei galdatuko zaie 335. artikuluko bigarren paragrafoan xedatutako zin-egite edo hitzemia.

Prozedura Zibilaren Legearen 341. artikuluan ezartzen da zer prozedura bete behar den epaileak peritua izendatzeko, eta hau agintzen du lehen atalean:

Urtero-urtero, urtarrilean, lanbide elkargoei, edo, horiek ezean, antzeko erakundeei, [...] akademia eta kultura- nahiz zientzia-erakundeei eskatuko zaie aditu gisa jarduteko prest dauden elkargokide edo elkartekideen zerrenda.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak abenduaren 19ko 5/2001 Instrukzioa onartu zuen, profesionalen zerrendak eskumeneko organoei urtero bidaltzeari buruzkoa epaileak peritu gisa izendatzeko, eta honako hau ezartzen du peritu-froga emateko **kolegiatzea ezinbestekoa**¹¹ duen titulazio bat behar den kasuetarako:

Justizia Auzitegi Gorenetakoa presidenteak eta epaile dekanok saiatuko dira lurralde-mugaketan diren eta judizialki eskatutako peritatze-lanerako egokiak izan litezkeen eta horrekin zuzenean harremana izan lezaketen titulazioekin lotutako **elkargo profesional guztietako** zerrendak biltzen.

20. Aparejadore eta arkitekto tekniko gisa lan egiteko ezinbestean kolegiatuta egon behar da (behintzat aldi batez, legez arautzen ez den bitartean).

Indarreko araudiaren testua zehatz-mehatz hartuta, epaile edo auzitegi batek eskatutako peritatze judizialeko zerbitzuen kasuan, ez ziren perituen

¹¹ BOE, 312 zk., 2001eko abenduaren 29koa. Instrukzioa aldatu egin zen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 2010eko urriaren 28ko Erabaki bidez (BOE, 279. zk., 2010eko azaroaren 18koa).



zerrendetan onartuko eta, beraz, ez zuten aukerarik izango zerbitzu horiek emateko, Elkargoko Perituen Elkarteko kide ez diren profesionalak edo, kide izanik ere, araudiaren 4. artikuluko eskakizunak betetzen ez dituztenak.

Hau da, Elkargoak Perituen Elkarte bat sortu du eta haren funtzionamendu-araudian ezarri dira zerrendetan sartzeko eskakizunak, aplikagarri den araudiak (Prozedura Zibilaren Legearen 340. artikulua) ezarritakoez harago doazenak.

Araudi hori aplikatzeak ekar lezake, justifikaziorik gabe, deskribatutako merkatuan lan egiteko aukera mugatzea.

21. Hala ere, espedientea izapidetu bitartean egindako jarduerak kontuan hartuta, ezin da esan praktikan Elkargoak egin duenik araudian ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten profesionalak zerrendetatik at uzteko jarduerarik, edota beren kabuz erabaki dutenik kanpo geratzea, Perituen Elkarteko kide ez izateagatik. Izan ere, araudiak ezarritako eskakizunak gorabehera, Elkargoak ez du atzera bota perituen zerrendan sartzeko eskaerarik.

3. Amaiera itunduaren lege-oinarria

22. Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 52. artikulua ezartzen duenez, Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta, debekatutako akordio eta jardunbideen inguruko zehapen-prozedura amaitzea ebatzi ahal izango du, baldin eta ustezko arau-hausleek **konpromiso batzuk** hartzea proposatzen badute, eta horien bidez espedientea irekitzea eragin duten jokaerek lehian eragindako **ondorioak konpontzen** badira eta interes publikoa behar beste bermatzen bada.

Konpromiso horiek lotesleak izango dira eta prozedurari amaiera ematen dion ebazpenean jasotzen direnetik aurrera izango dituzte ondorioak. Prozedura ezin izango da artikulua honetan zehazten den moduan amaitu Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 50.4. artikuluan aurreikusitako proposamen-txostena aurkeztu eta gero.

Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 52. artikulua garatuz, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduak, otsailaren 22ko 261/2008ko Errege Dekretuak onartutakoak, ezartzen du, bere 39. artikuluan, prozeduraren edozein unean proposamen-txostena aurkeztu aurretik Ikerketa Zuzendaritzak hitzartu dezakeela, debekatutako portaeren ustezko egileek proposatuta, debekatutako akordio eta jardunbideen gaineko zehapen-prozeduraren amaiera itundua burutzeko jarduerak abiaraztea. Amaiera itundua abiarazteko akordio



hori interesdunei jakinaraziko zaie, eta adierazi egin beharko da ea eten egingo den prozeduraren gehieneko epearen kontaketa amaiera itundua burutu arte.

Ustezko arau-hausleek konpromisoen proposamena aurkeztuko diote Ikerketa Zuzendaritzari hark amaiera itunduko akordioan ezarritako epean, eta epe hori ezin izango da hiru hilabete baino gehiagokoa izan. Proposamen hori Lehiaren Kontseilu Nazionalari igorriko zaio jakinaren gainean egon dadin, eta interesdunei, egoki irizitako alegazio guztiak argudiatu ahal izateko.

Gero, Ikerketa Zuzendaritzak Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluari aurkeztuko dio amaiera itunduaren proposamena, kontuan hartu eta prozedura amaituko duen ebazpenean txerta dezan. Behin amaiera itunduko proposamena jasotakoan, Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak aukera hauek izango ditu:

- a) Zehapen-espedientea ebaztea amaiera itundu bidez, aurkeztutako konpromisoak egokitzat jota.
- b) Erabakitzea aurkeztutako konpromisoek ez dituztela behar bezala konpontzen lehian izandako ondorioak espedientea irekitzea eragin duten portaerek eraginda, edo ez dutela behar adina bermatzen interes publikoa; hala balitz, aukera izango du epe bat emateko ustezko arau-hausleek aurkez ditzaten Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluaren aurrean hautemandako arazoak konponduko dituzten konpromiso berriak. Baldin eta, epe hori igarotakoan, ustezko arau-hausleek ez balituzkete konpromiso berriak aurkeztuko, ulertuko da bere eskaera bertan behera uzten dutela, eta zehapen-prozedurarekin jarrai dezala eskatuko dio Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak Ikerketa Zuzendaritzari.

23. Lehiaren Defentsari buruzko Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalari eta haren zuzendaritza-organoei bertan egindako aipuei dagokienez –funtzioei, eskumen administratiboei eta prozedurei buruzkoak–, ulertuko da, orobat, autonomia-erkidegoetan gaian eskumena duten instrukzio- eta ebazpen-organoei ere egiten zaizkiela, horiek Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 13. artikuluan jasotako eskumenei buruzkoak direnean. Horregatik dauka Lehiaren Euskal Kontseiluak amaiera itundua hitzartzeko eskumena.

4. Elkargoak aurkeztutako konpromisoak

24. Ikerketa Zuzendaritzak Lehiaren Euskal Kontseiluari bidali dio zehapen-espediente honi lotutako Amaiera Itundua Hitzartzeko Proposamena: 09/2012,



BIZKAIKO APARAILARIEN ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGOA. Proposamen honetan, irizten da Elkargoak hartutako konpromisoek konpondu egiten dituztela hautemandako lehia-arazoak, eta horrenbestez, interes publikoa behar bezala bermatzen dela. Horregatik, LEKri eskatzen zaio ebazpena emateko, eta, ebazpen horren bidez, aurkeztutako proposamenak onartzeko eta zehapen-prozedura amaiera itundu bidez amaitzeko.

Iritzi berekoa da, halaber, LEK ere, uste baitu zehapen-prozedura amaiera itundu bidez gauzatzeko proposatutako konpromisoen edukiak baduela gaitasuna lehiari egin zaizkion murriztapenak –zeinak egiaztatu baitira– gainditzeko eta, horrela, interes publiko behar bezala bermatuta geratuko dela.

Deskribatutako portaerak lehia-arazoak sortzen ditu, arau horrek murriztu egiten baitie Perituen Elkarteko kide ez diren profesionaleri eta Perituen Elkarteko kide izan arren Araudiaren 4. artikuluko eskakizunak betetzen ez dituztenei peritatze judizialeko zerbitzuak emateko aukera. Hori horrela izanik, eskakizun horiek Lehia Defendatzeari buruzko Legearen 340. artikuluan legez ezarritakoez harago doaz.

Araudia aldatuz gero eta espediente honen baitan hartutako erabakiak ezinbestez ezagutzera emanaz gero, argi eta ezbairik gabe konpontzen dira hautemandako lehia-arazoak.

Perituen Elkarteak eta Elkargoak berak prozedura hau izapidetu bitartean izandako jarrera kontuan hartuta, agerian geratzen da konpromiso horiek azkar eta eraginkortasunez bete daitezkeela. Gainera, konpromisoak betetzen al diren eta konpromiso horiek eraginkorrak al diren gainbegiratzea bideragarria eta eraginkorra da.

25. Ebazpen hau eta hari atxikitako konpromisoak **ezagutzera eman** behar dira gehienez ere hilabete bateko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Alde batetik, Elkargoak ebazpen honen edukia jakinarazi behar die elkargokide bakoitzari banaka, bai eta ebazpenari atxikitako konpromisoak ere.

Bestetik, Elkargoak ebazpen honen edukia eta hari atxikitako konpromisoak jakinarazi behar ditu bere web-orrian toki nabarmen batean (gaur egun <http://www.coaatbi.org>).

Eduki horiek, gehienez ere, hilabete bateko epean argitaratu beharko dira, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, eta gutxienez hamabi hilabetez eduki beharko dira.



26. Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamenduaren 39.7 artikuluari jarraituz, amaiera itundua gauzatzeko ebazpen batean jasotako konpromisoak eta betebeharrak **ez betetzea** oso arau-hauste larritzat hartzen da, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 64.4.c artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz. Halaber, gerta daiteke hertsatze-isunak ezartzea eta, hala badagokio, zehapen-espeditante bat irekitzea Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1., 2. edo 3. artikulua urratzeagatik.

Lehiaren Euskal Kontseilu honek, goian azaldutakoa kontuan hartuz,

IV. EBAZTEN DU

LEHENA.- BIZKAIKO APARAILARIEN ETA ARKITEKTO TEKNIKOEN ELKARGOARI irekitako zehapen-prozeduraren amaiera itundua adostea izaera loteslez, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 52. artikuluan xedatutakoa betez.

Horretarako, kontuan hartzen dira Elkargoak proposatutako konpromisoak, zeinak ebazpen honen I. eranskinean jaso baitira.

BIGARRENA.- Hitzartzea Elkargoak bete egingo dituela ebazpen honen I. eranskinean jasotako konpromisoen proposamenean ezarritako betebeharrak, amaiera itunduko akordioa behar bezala beteko dela ziurtatzeko.

HIRUGARRENA.- Ikerketa Zuzendaritzari ematea amaiera itunduko akordioa – eta, horrenbestez, hartutako konpromisoak eta ezarritako betebeharrak– bete dela gainbegiratzeko ardua.

Jakinaraz bekie ebazpen hau Ikerketa Zuzendaritzari, Bizkaiko Aparailarien eta Arkitekto Teknikoen Elkargoari eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalari, eta aditzera eman bekie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipin dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik kontaktzen hasita.



I. eranskina

Elkargoaren konpromisoak

AURRETIAZKOA. Agintaritza honi bidalitako jakinarazpenetan aurrez adierazi denez, praktikan ez da inongo jarduera diskriminatzailerik egin elkargokideetako inorekiko "peritu gisa aritzeko elkargokide edo elkartekideen" zerrendei dagokienez – zeinak Prozedura Zibilaren 1/2000 Legearen 341. artikuluan baitaude araututa–, Elkargoak egin dituen eta 2001az geroztik epaitegietara bidali diren zerrendak irekita egon baitira denentzat, inongo bereizketarik egin gabe.

LEHENA. Berehala Elkargoko web-orritik kentzea gaur egungo araudia eta han ageri diren eta lehiari buruzko legeriaren aurkakoak diren gainerako testu guztiak.

BIGARRENA. Ez ezartzea inolako arau-eskakizunik, Prozedura Zibilaren Legeak eta gainerako arau prozesalek ezarritakoez gain, urtero epaitegietara bidaltzen diren zerrendetan elkargokideak sartzeko.

Alde horretatik, eta kontuan hartuta Peritu Judizialen Elkarteko araudian badirela aldatu beharreko atalak baldintza hori beteko bada eta egokitu egin behar direla lehia arautzeko legeria kontuan hartuz, araudi horren testua aldatzeko proposamena aurkezten da.

Prozeduraren ikuspegitik, behin Agintaritza honen baimena lortutakoan, Elkargoaren Gobernu Batzordeak berehalakoan (gehienez hamabost eguneko epean) onartu beharko luke proposatutako araudi-aldaketa, zeren eta kontuan hartuz gai hau ez dagoela Estatutuetan Batzar Orokorraren eskumen gisa jasota, Gobernu Batzordeari egotzitako funtzio orokorren barruan sartzen baita Estatutu Orokorraren 20. artikuluan (horiek Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2002ko uztaileko Agindu bidez onartu ziren; 2002ko irailak 19ko EHAA).



Hala ere, eta kontuan izanda bai aipatutako araudiaren hasierako onespena bai ondorengo aldaketak ere elkargokideen Batzar Orokorrean onartu zirela, aldaketa berri hau ere Batzar Orokorrean aurkeztuko da berretsi dadin, Batzar Orokorrak egiten duen lehen ohiko bileran, nahitaez urteko hirugarren hiruhilekoan izango dena (indarreko estatutuen 16. art.) eta, gertatu ohi den bezala, abenduan egiten dena (aurten hilaren 17rako, asteartea, dago aurreikusita).

HIRUGARRENA. Lehiaren Euskal Kontseiluak, hala balegokio, ematen duen amaiera itunduko ebazpenaren eduki osoa ezagutzera ematea Elkargoak erabili ohi dituen komunikazio-bideak baliatuz. Zehazki, honako bide hauek baliatuz egingo da:

- Elkargoaren web-orrian sartzea irekitako espedientearen berri ematen duen testu bat, zioak, amaiera itundua eta hartutako neurriak azalduz.
- Elkargokide bakoitzari jakinaraztea e-mailez edo gutun bidez eta Elkargoaren buletina den ALDIZKARIA txertatzea jakinarazpen bat akordioaren testu osoaren berri ematen duena, aurreko puntuan aipatutakoak jasoz (buletina hilero bidaltzen da e-mailez ia elkargokide guztiei eta paperean, berriz, helbide elektronikoa ez dutenei).
- Batzarrak aldaketa-akordioa berresten duen unean, horren berri ematen duen albistea jarriko da webgunean eta elkargokide guztiei jakinaraziko zaie ALDIZKARIA buletinean beste albiste bat jarriz.

LAUGARRENA. Lehiaren Euskal Agintaritzari helaraztea hartutako konpromisoak gauzatu izana ziurtatzen duen dokumentazioa, horiek bete direla egiaztatu ahal izan ditzan.